

Hezkuntza eta espazioa

Nafarroako Eskola Kontseiluko Jardunaldiak

Laburpena

2018ko martxoan Nafarroako Eskola Kontseiluak hezkuntza eta espazioaren gaia garatu zuen hezkuntza-komunitatearekin, arkitekto, aditu eta arduradun instituzionalekin batera. Hezkuntza aktibo, esanguratsu eta inklusiboak espazioekiko harreman berria eskatzen du. Ordutik aurrera hamaika eztabaida eta proiektu gauzatzen ari dira.

Gako-hitzak: hezkuntza komunitatea, hausnarketarako jardunaldiak, proiektu partekatuak, lankidetzak - sareak

Abstract

In March 2018, the School Council of Navarre, along with the educational community, architects, experts and institutional players, discussed the topic of Education and Space. Active, meaningful and inclusive education requires a new kind of relationship with space. Since then, countless discussions and projects have taken place.

Keywords: education community, ruminant conferences, sharing project, working-net



Aitor Etxarte Berezibar

Pedagogoa, irakaslea. Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakaria.

Bidaltze data: 2019-02-19

Onartze data: 2019-03-19



Espazioa eta denbora bi kategoria desberdin, lineal eta ageriko zirela erakutsi ziguten. Espazioa hilik zegoela ematen zuten, finkoa zela, ez dialektikoa; denbora, ordea, dinamikoa eta emankorra zen. Eguneroko egiaztatzen dugu bereizketa hori iruzurra dela.

Gizarte bakoitzak ekoizpenerako, erreprodukzioarako eta adierazpenerako bere espazioa sortzen duela ikasi dugu, alegia, espazio sozialak jarduketarako sozialak eta subjektu kolektibo eta indibidualen ekintzak barne hartzen dituela; ez dago espazio-denbora bakar bat, baizik eta elkar gurutzatzen duten eta elkarren ondoan jarritako asko eta asko. Henri Lefebvrek aztertu zuen hori guztia, eta espazioaren eta denboraren arteko erlazio konplexua fluxuen dinamikaren antzekotzat jotzen zuten, hostopil itxura emanez.

Hala, espazioaren eta denboraren errealitatea ez da mugatzen, noizbait xaloki uste dugun bezala, bi dimentsioko plano batera edo lehen-orain-gero sekuentzia batera. Horrek karikatura bihurtzen du edozein ingurune habitaturen errealitatea, besteak beste, eskola batena eta horren ingurunearena.

Gaia aztertzen hasten garenean ohartzen gara leku bakoitzean etengabe josten diren jarduerak bestelako berri ematen digutela. Adibidez, haurra gaur egun ezin da hirian, edo herrian, bere kabuz mugitu. Ikastetxera, eskolaz kanpoko jardueretara edo etxera, gero eta gehiago, kotxean doa edo heldu baten laguntzarekin. Haurrak ezin du kalean jolastu, ezin da zaintzailearen bistatik aldendu. Txikia denean plazetako eskorta itxi eta mugatuetan ari da mekanikoki zambiluan edo txirristan. Edo etxean, ongi gordeta, pantailetan kateatua. Familia bazkarietan edo ospakizunetan

bestelako mahaian jaten du, bere adinekoekin segregatua, bigarren mailako azukre eta gatz jaki bereziekin. Bizitzaren pasarte nagusietatik kanpo da, ez du hurbilekoen jaiotza edo heriotza ezagutzen, aparteko lekuetan gertatzen direlako, eta jaietan haur-txokoetara bideratzen da. Leku-sistema honetan naturalizatu da eskola kapsulatuaren gaur egungo errealitatea.

Pierre Bourdieuk bere ikerketen atal handi bat eskaini zion modernitatearen definitzen duten eta gizarte- instituzioak eta bizi-ohiturak egituratzen dituzten dikotomien analisiari. Besteak beste, honako hauek aipatzen zituen: maskulinoa/femeninoa, negozioa/sentimendua, industria/ artea, ekonomia/askatasuna, kanpoaldea/barnealdea, lana/ etxebizitza, edo lanegunak/jaiegunak.

Eta eskoletan, zer? Bere baitan, ezinbestean eta borondatez, ematen diren funtzioak historikoki bereizi dira modernitatean: ikastea/jolastea, alaitasuna/seriotasuna, gozamina/sufrimendua, lana/aisialdia, mugikortasuna/ gelditasuna, isiltasuna/zalaparta, bakardadea/lagunartea. Eta funtzio bakoitzari espazio zehatza egokitu zaio dikotomiak errepikatuz: eskola ala kalea, gela ala patioa, kanpoa ala barrua.

Aurreko guztia hostopilaren ukazioa da. Gure artean inoiz baino haur eta nerabe gutxiago direnean, jendartetik baztertuagoak dira, espazio eta jarduera bereizietan ari dira, inoiz baino zelatatuagoak.

Puntu honetara helduta, funtzioen eta espazio-denboraren bereizketa hau eskola berritzeko joera askoren kezka klasiko bat izan dela aipatu behar da. Eskola Berriaren



1. irudia - Hezkuntza eta espazioaren egitaraua. Iturria - NEK.

mugimenduak, beste gai askoren artean, lekuaren azterketa egin zuen eta azken hamarkadan gurean berrikusi ditugu. Hor dira galderak: Zer hiritan habitatu nahi dugu? Nola bizi gaitezke inguruko ibai eta mendietatik hurbilago? Zer leku hartzen dute txikienek espazio publikoetan? Norenak dira eskolako espazioak? Nork kudeatzen ditu elikadura eta zaintza?

Jendarteak, haziz doan uholde isilaren bidez, eskatzen du eredu aktiboen, inklusiboen eta lankidetzan oinarritutakoen arabera hezkuntza-proiektuak sortzea. Alde bakarreko proposamenek, gure eskola- tradizioan oinarritutakoak izan direnak, etorkizun gutxi dute. Lehen esandako galderen formulazioa eta erantzunak askoren artean partekatzen hasi dira eta, ondorioz, hezkuntza-komunitate, erakunde administratibo eta hezkuntza-erakunde askoren agendetan lehenetsia bihurtu dira.

Nafarroan aurrekari esanguratsua izan zen 2014-2015ean Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak, Oteiza Museoarekin elkarlanean, antolatu zuen «The best school in the world» erakusketa. Finlandiako eskola-sistemaren ikuspegi orokorra eskaintzen zuen eta, aldi berean, hango eskola- arkitekturaren bilakaera historikoa. Aukera bikaina izan zen eskolak diseinatuak zituzten arkitektoak eta hezkuntzako adituak eztabaida ezberdinetan aurrez aurre jartzeko. Bi mahai inguru bereziki interesgarriak egin ziren haur-eskolak eta derrigorrezko hezkuntzaren espazioen inguruan. Iritzi edo ondorio ugari partekatu genituen eta bat guztien aurretik: eragile guztien arteko inkomunikazioa. Agerian gelditu zen kasu gehienetan administrazioak, irakaskuntzako langileak, familiak, arkitektoak edo adituak ez zirela elkarrekin aritzen diagnosirako eta proposamenak adosteko.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren «Hezkuntza eta espazioa» jardunaldiak testuinguru honetan kokatzen dira. Jardunaldi

horiek 2018an egin dira familia, irakasle, arkitekto, profesional, eragile sozial eta udal-arduradunei zuzendutakoak.

Jardunaldien diseinua behin betiko fasean abiarazi zen aditu talde zabal batek erabaki zuen. Talde hori bost hilabetez aritu zen ardatz tematikoak, hitzaldien gaiak eta jardueren metodologia zehazten. Ezinbestekoa da pertsona horiek esparru hain pluraletatik garatutako lana aitortzea. Hor aritu ziren esparru ezberdinetatik etorritako gonbidatuak: Nafarroako Hezkuntza Departamentua, arkitektura, soziologia, toki-administrazioak, espazioak eraldatzeko proiektuak dituzten ikastetxeen zuzendaritza- taldeak edo artearen eremukoak.

Aurreko adituen laguntzarekin, hezkuntza-komunitatetik eta komunitatera hausnarketak ekartzea bilatu zuten jardunaldiek. Helburu nagusiak izan ziren hezkuntza eta espazioen arteko loturak aztertzea, hezkuntza-espazioen eta testuinguruen praktika onen ereduak definitzea, Nafarroako hezkuntza-sisteman espazioarekiko eskola- esperientzia esanguratsua partekatzea eta jendarteari eta hurbileko eragileei esperientziak jakinaraztea.

Gure jardunaldietan ohikoa den moduan, hasierako saio berezia egin zen adituen taldearekin eta komunikazio publikoetan parte hartu zuten solaskideekin. Saio berezi horrek joera ireki eta tekniko izaten du eta, aldi berean, emanaldi publikoen abiapuntu egokia izaten da.

Arratsaldeko saio publiko guztiak parte hartzeko irekiak izan ziren 180 pertsonaren tokia osatu arte. Hor izan ziren irakasleak, gehienak, eta bestelako profila zuten pertsonak, bereziki, guraso, arkitekto edo udal-arduradunak.

Lehendabiziko saioan, martxoaren 5ean, Hezkuntza kontseilari María Solana Arana eta Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakari Aitor Etxarte Berezibarren



2. irudia ~ Adituekin Jardunaldien prestaketa saio bat.

Iturria ~ NEK.

3. irudia ~ Jardunaldien aurkezpen saioa Nafarroako Museoa

Iturria ~ NEK.

aurkezpenek jardunaldiei irekiera publikoa eman zieten. Ondoren, Heike Freirek, haurtzaroen eta hezkuntza-berrikuntzetan aditua, «Hezkuntza eta natura»ri buruzko hitzaldia eskaini zuen. Martxoaren 6an, Clara Eslava arkitektoak «Hezkuntza eta arkitektura»ri buruzko hitzaldia eskaini zuen. Eta martxoaren 7an, lanire de Andrés eta Ula Iruretagoiena arkitektoek «Hezkuntza eta hiria»ri buruzko hitzaldia eman zuten. Horrela, saio publikoen hasieran adituen parte-hartzea izan zen, eta hitzaldi nagusien bidez, elkar gurutzatzen duten hiru ardatz landu dituzte: hezkuntza eta natura, hezkuntza eta arkitektura, hezkuntza eta hiria.

Hiru egunetan praktiken aurkezpenak egin ziren. Nafarroako hezkuntza-sisteman alor honetan esperientzia interesgarriak dira. Ezin izan ditugu guztiak erakutsi eta Hezkuntza Departamentuak urtero «Berrikuntza Proiektuen» deialdian aurkeztu diren proposamenak lehenetsi ditugu. Gauzak horrela, zuzeneko emanaldietan ezagutu ditugu ikastetxe hauenak: Sarrigurengo Hermanas Úriz Pi IP (jolastokian interbentzio ekologikoa), Iruñeko Mendillorri Haur Eskola (auzoa eta bere parkeak eskolaren parte eginez), San Francisco IP (eskola barruko espazioak eta inguruko parke publikoen erabilera naturalizatuz), Hijas de Jesús (ikastetxearen barne-espazio berrituak), García Galdeano IP (eskola barrua berriz hausnartua), Bernart Etxepare IP (jolastokia guztiontzat bihurtzeko egitasmoa), Mendigoiti IP (barruko eta kanpoko espazioen eraldaketa sakona). Bestelako esparruetatik hiru proiektu zabaldu ziren: Iruñeko Udalak gauzatuko dituen bi parke publikoak eredu ekologiko

eta inklusiboan gauzatuko direlako, Zizur Nagusikobide seguruak eta eskolen jolastokian egindako aldaketak, eta Hezkuntza Departamentuaren Etorkizuneko Ikasgelaren proiektua.

Ekimen horiek hainbat abiapuntu izan dute (klastroak, familiak, udalak edo ikerketa-taldeak), baita hezkuntzaren ikuspegi zabalago batera bideratutako garapenak ere. Horren guztiaren adibide aparta eskaini da saio publikoetan, irakasle taldeen eta garapenean dauden proiektuak ezagutarazteko pertsona gonbidatuen lanari esker.

Aurrerago aipatu den moduan, Eskola Kontseiluaren Jardunaldiek ekarpen akademikoen eta frogatutako esperientzien arteko elkarrizketa bilatzen dute. Topaketa hauen lana osatzeko partaide guztiei inkesta bat bidali zitzaizen bestelako esperientziak eta iritziak ezagutzeko. Martxan jarri zen bitarteko honekin jardunaldietara etorritako pertsona guztiei ekarpenak egiteko bidea eskaini zitzaizen. Bost izan ziren proposatutako gaiak: natura eskolaren parte da, eskola-espazio guztiak hezkuntzaren espazioak dira, eskolaren espazioak eta jarduerak inklusiboagoak eta parte-hartzaileagoak izan daitezke, hezkuntza-komunitatea eskolaren subjektua da, auzoa edo herria heziketarako espazioa da. Jasotakoek IDEA aldizkariaren eranskin esanguratsua osatu zuten errealitate eta esperientzia ugarien berri agertuz. Frogatu da bitarteko egokia izan dela, gainerako ekarpen guztiekin batera, ebaluazio eta proposamenen mapa orokorra osatzeko.

Baina jardunaldietatik ere bestelako proposamen esanguratsua bideratu da: bisitaldi gidatuak esperientziak bertatik ezagutzeko. Apirilean zehar jardunaldietan parte hartu duten ikastetxeetara bisitaldiak antolatu dira. Eskola Kontseiluaren bidez interesa duten taldeak osatu dira, 25eko tamaina bitarte, eta tokian tokiko zuzendaritza-taldeen ardurapean bisitaldiak diseinatu dira. Horrela, apirilaren 11n aukera izan zen bertatik ezagutzeko Sarrigurengo Hermanas Úriz Pi IP, Iruñeko Bernart Etxepare IP eta Zizur Nagusiaren proiektua; apirilaren 18an Iruñeko San Francisco IP, San Ignacio ikastetxea eta Noaingo San Miguel IP; eta apirilaren 25ean Iruñeko Mendigoiti IP, Hijas de Jesús ikastetxea eta García Galdeano IP.

Parte-hartzaileei ondoren egin zitzaizen inkestan azpimarratu zuten izandako harrera atsegina, proposamenak sakontzeko izan zuten aukera, eztabaidarako ireki ziren solasaldiak eta, bereziki, bestelako egoeretan aplikatzeko ikasitako tresnak. Egia esan, jarduera hauetatik hilabeteak pasatu direnean pozgarria da gertatzen ari den ondorengo jarioa eskolen arteko bisitaldi-trukeak direla-eta, ikastetxe eta udaletan sortzen ari diren azterketarako taldeak edo/eta Eskola Kontseiluarekin harremanetan jartzen diren eragileak proiektuen berri emanez edo aholkularitza eskatuz.

Bestalde, testuinguru honetan Nafarroako Hezkuntza Departamentuak, Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzuaren bidez, dinamika honetan parte-hartze oso esanguratsua hartu du, arkitekto adituekin eta hezkuntza-komunitatearekin elkarrizketan, ikastetxe berriak egiterakoan oinarritzko baldintza-agiriak erabat berritu dituelako. Horrela, besteen



4. irudia ~ Proiektuen komunikazioa.
Iturria ~ NEK.

artean, Arbizuko edo Abartzuzako Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola berriek bestelako arkitektura eta altzariak edukiko dituzte. Eta aurrekoarekin batera uholdea iritsi zaio eskola anitzetan orain arteko ohiko espazioak aldatzeko laguntza eskatzen dutelako gela-espazioen arteko loturak egiteko, jolastokietan naturari bide emateko eta, oro har, aktiboak eta kolaboratzaileagoak diren metodologietarako lekuak egokitzeko.

Bukatzeko, Nafarroako Eskola Kontseiluak landu nahi izan du hezkuntza aktibo, inklusibo eta lankidetzazkoaren eta hezkuntza-espazioen arteko harremanaren gaia, hau da, eskolak eta beren inguruneak. Faktore hauen arteko lotura estuak kezka nahiz ilusioa sortzen ditu. Betiere, hezkuntzaren eta espazioaren inguruko jardunaldi hauetan, W. Benjaminen gogoeta bikain bati heldu diogu: «Haurra gai da helduak inola ere egin ezin duen zerbait egiteko; berria dena berriz ere deskubritu dezake». Deskubrimendu horrek esanahi sinbolikoa ematen die objektuei zein espazioei, eta, hala, memoria kolektiboak horien adiera utopiko bat berreskuratzen du. Espero dezagun, hori dugu bizilege, ekintzen bidez ideiak aldatzea eta ideien aldatzea, aldi berean, ekintza berriak sortzea. Espazioak eta denborak birpentsatuko dituzten eskolak behar ditugu, guztientzako lekuak eta aukerak sortzeko, hostopil on bat bezain konplexuak eta gozagarriak.

///

Erreferentziak

IDEA (2018). Bistaratutako eguna: 2019/02/18: <http://consejoescolar.educacion.navarra.es/web1/eu/fitxeroak-2/idea-aldizkaria>

XXI. Jardunadietako hitzaldiak. Clara Eslava, Ula Iruretagoiena, Ianire de Andrés (2018). Bistaratutako eguna: 2019/02/18: <http://consejoescolar.educacion.navarra.es/web1/eu/2018/03/28/xxi-jardunadietako-hitzaldiak>